

LURRALDE ETA HIRI-PLANGINTZA MEXIKOKO TRENBIDE-INGURUNEAN

Posted on 09/09/2026 by Naider

Category: [Albisteak](#)

Tags: [Gobernantza eta lurralde estrategia](#), [Hirigintza jasangarria eta eko-hiria](#), [Mexiko](#)

NAIDERek [Planeación, Desarrollo & Territorio \(CPDyT\)](#) erakundearekin lankidetzan dihardu (Mexikon lurralde-plangintzan erreferente den enpresa da), Villaldama, Lampazos de Naranjo, Anáhuac eta Nuevo Laredo geltokien inguruko **Lurralde Antolamendu eta Lurzoru Kudeaketa Azterlanak** egiten, Nuevo León eta Tamaulipas estatuetan. Lanak Mexikoko Gobernuaren [Secretaría de Desarrollo Agrario, Territorial y Urbano \(SEDATU\)](#) delakoarentzat egiten dira, **Trenbide Programa Nazionalaren** esparruan.

Trenbide-azpiegitura berriak ezartzeak hiri- eta ekonomia-eraldaketarako aukerak zabaltzen ditu, baina lurzoruaren erabilera eta balioari, hiri-hazkunderari, mugikortasunari eta lurralde-artikulazioari lotutako erronkak ere planteatzen ditu. Azterlanei esker, dinamika horiek aurreikusi ahal izango dira eta geltoki berriak beren inguruneetan integratzeko bidea zehaztuko da.

CPDyTk koordinatutako taldearen barruan, NAIDERek bere lurralde-plangintzako, hiri-garapeneko eta gizarte-ekonomia-analisiko esperientzia ekartzen du, besteak beste, Garraiora Bideratutako Garapenaren (GBG) erreferenteen analisisian, lurralde-ekonomian eta lurzoruaren erabileretan, etorkizun-eszenatokien eraikuntzan eta lurralde-integratzeko estrategietan, eta ezarpenerako ibilbide-orria zehazterakoan.

